

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, ekainak 17



## Udan ere elurretan saltoka

OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK



*Freska zaitezen!*

Hilabete honetarako promozio baliagarria.



**OPEL**

10<sup>o</sup>  
URTEURRENA

**TALLERES  
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/

BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn:

Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

ANITZAILE OFIZIAIAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.



**GUIPUZCOANA**

*Paketean garraio eta banaketa*

**BERGARA**

*San Juan Erreka. Elgetara bidea.*

*Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25*

## BERRIGARA

Estimado Jauregia, 20.570 Bergara.  
Ainhoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Argitaletxea  
Elkartea  
Alderri, 13. 20.570 Bergara.

76 03 97

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.

**Erredakzioa:**

Gorka Azkarate, Eduardo Mendibil eta  
Mikel Elkorobereibar.

**Argitaratzailea:**

Gorka Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Argitaratzailea eta harpidetzak:**

Gorka Azkarate eta Gorka Elorza.

76 03 97

**Elaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,  
Angel Angel Elkorobereibar, Alex  
Lizasoain, Iñaki Eraña, Juan Martin  
Lizasoain, Josu Oregi, Maripi Laskurain,  
Ainhoa Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander  
Lizasoain, Mikel Lizarralde, Monika  
Lizasoain, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa  
Lizasoain.

**Elaboratzaileak eta marrazkiak:**

Jose Rodriguez, Gorka Ortega, Jon  
Lizasoain, Jose Martin Ezenarro  
eta Julian Ezenarro.

**Argitaratzailea:**

Argitaletxea  
Elkartea  
Alderri, 13. 20.570 Bergara.

76 03 97

**Argitaratzailea:**

Argitaletxea  
Elkartea  
Alderri, 13. 20.570 Bergara.

76 03 97

76 03 97

76 03 97


BERRIGARA ez du bere gain hartzen  
argitaratzailearen adierazitako esanen eta iritzien  
erantzukizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Jaurlaritzako Kultura  
sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

## RAMON OSINAGA

### *Ipintza Institutuko* **zuzendaria**

#### - Zein eritzi duzu Selektibitateari buruz?

- Beti egon da ha-  
lako filtroren bat Uni-  
bertsitatean sartu ahal  
izateko eta ez nago  
ados Selektibitatea hor-  
rela erabiltzearekin.  
UBI gaintzea nahikoa  
izan behar luke ikas-  
leek nahi duten karrera  
aukeratu ahal izateko  
baina hori ez da horrela  
eta askotan nahi ez  
duten karrera bat ikas-  
tera behartuta daude  
ikasle asko. Gainera,  
gure kasuan behintzat,  
UBI gaintzen duten  
ikasleetatik % 98ak Se-  
lektibitatea gaintzen  
du eta media jeisteko  
baino ez du balio.  
Horrez gain, ez dut uste  
ikasleen heldutasuna  
ondo neurtzen duenik.



#### - Beste metodorik aztertzen ari da?

- Unibertsitate eta  
fakultate bakoitzak be-  
re azterketa egiteko  
susmoa dago eta hori  
oraindik okerrago da.  
Baina, zoritxarrez, gaur  
egun, "Numerus Clau-  
sus" delakoak nota bat  
eskatzera behartzen  
ditu eta hori konpondu  
beharra dago.

**"Ez nago ados Selektibitatea filtro  
bezala erabiltzearekin"**

## I T U R R I O N E T I K

### Kultur Ekintza eta Ariz-Ondoren etorkizuna erabakitzeke batzarra

Kultur Ekintzaren Batzar Orokorra izango da  
datorren ekainaren 25ean Miguel Altuna  
Institutuan, besteak beste, Kultur Ekintza bera  
eta Ariz-Ondo aldizkariaren etorkizuna  
erabakiko direlarik. Arazo ekonomikoak direla  
medio baliteke argitaratzeke dagoen ekaineko  
zenbakia Ariz-Ondoren azkena izatea. Ariz-  
Ondokoek adierazi dutenez, uztailan ez da  
aldizkaririk kaleratuko. Aipatutako Batzar  
Orokorreko hirugarren puntuan Kultur Ekintza  
desagartzeko proposamena ere  
aztertuko da.

E S A N  
D U T E

"Alderdi asko  
nekazariokin kanpaina  
garaian akordatzen  
dira bakarrik eta nik  
legealdi osoan zehar  
gure arazoez  
arduratzea eskatuko  
nieke"

**MAITE ARISTEGI**  
EHNEko ordezkaria  
ETB

"Uda garaian  
danetariko bidaiak  
egiten ditu jendeak  
baina aurtengo  
abuztuan, beharbada,  
Hegoamerika eta  
Thailandiarako eskaera  
gehiago daude.  
Panama eta  
Colombiarako ere  
eskaera ugari jaso  
ditugu egunotan eta  
oferta onenak  
eskuratzeko egokiena  
azken momentura arte  
ez itxoitzea izaten da"

**MARIA EUGENIA  
BASTERRA**  
Ecuador Bidaia  
Ajentziako langilea  
EUSKADI IRRATIA



## Zinea

▼▼ **Julia Roberts** eta **Denzel Washington** protagonista direla, **Alan J. Pakula** zuzendariak (*Presunto inocente*) tentsioz beteriko filme bat egin du orain. **Darby Shawk** (**Julia Roberts**) *Grantbam* kazetariari (**Denzel Washington**) laguntza eskatuko dio hilketa batzuk argitzeko. Baina etsaiak gainean dituzte eta beranduegi izan daiteke...



## Deiak


▼ **Itziar Larrañaga**ren "Gorputza, sentimenduak, osasuna" hitzaldia ostegunean 15.30etan Gartzela Zaharrean. JARDUN Elkarteak antolatuta.

▼ **Carlos Martínez** Mexicoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Arte Plastikoko irakaslearen "La pintura como medio cognoscitivo del ser humano y de la creación" hitzaldia ostegunean 7etan Kultur Etxean.



## Ogia

▼ **Igandea 19:** Konde.



## GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 18:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Igandea 19:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Astelehena 20:** Camacho/Amezua.
- ▼ **Asteartea 21:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 22:** Guallar/Morales.
- ▼ **Osteguna 23:** Estella/Azkoaga.
- ▼ **Ostirala 24:** Mozos/Corcuera.



**EL INFORME PELICANO**  
**Ostirala: 22.30**  
**Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.**  
**Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.**  
**Astelehena: 19.30.**  
 (Ikuslearen Eguna).



**Musika Eskolak ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du astelehenean arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan.** Txikien taldekoek autore ezberdinen hainbat pieza emango dituzte eta, ondoren, **Alberto Laskurainek** zuzentzen duen Orkestra Txikiaren saioa iragarri da.

# MURUAZPI SAGARDOTEGIA

San Inazio, 25 - Legazpi • Tf. 73 33 26



## MENUAK SAGARDOAREKIN

- Menua 895 pezetetan, astelehenetik ostiralera.
- Kaxuelatxoak, entsaladak.
- Afari merkeak.
- Egunero irekiko dugu, astearteak ezik.
- Aurrez eskatuz gero, oilaskoak edo arkumea egurrezko labean.
- Igandetan, 11etatik 1era **hamaietako**.

# SPIELBERG-ENAK EGITEN

## Bideo Ikastaroa Kultur Etxean

*Isladak antoaltzen du eta hil bukaeran hasiko da*

**Islada** Kultur Etxeko bideogelak bideo ikastaro bat iragarri du ekainaren 29tik urriaren 3ra bitartean. Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan ikasketak burutu zituen Amaia Labaien 26 urteko bergararrak urtebete darama bertan lanean eta berak azaltzen digunez, "ikastaroa bi zatitan banatzen da: lehendabiziko hilabetean bideo iluminazioa, muntaia, soinua edota gidoiari buruzko oinarrizko kontzeptuak eta teknika ezberdinak landuko ditugu. Ondoren abuztuan ikasleak gidoi baten ideiak lantzen joatea komeniko litzateke irailan bertan errodutzen hasi eta bemen dagoen materialarekin imajinak berehala montatzen basteko. Hori egin baino lehen material ezberdina ikusiko dugu ikasleekin komentatu eta jendea ideiak hartzen joateko".



Amaia Labaien Kultur Etxeko bideogelako arduraduna da.

Amaiak aipatzen duen moduan, "maila ezberdineko jendea etortzen da ikastaro hauetara, edozein etor daiteke (gogoia besterik ez da falta) eta nik askotan ere beratekin ikasten dut. Honetan ere, aurretik ikastaroetan ibi-

litako Josumi Aspiazu eta Xabi Labaien egunen batean gonbidatzekoa asmoa daukat, gidoia eta soinuari buruzko azalpenak eman ditzaten".

Ikastaro bukaeran, esan bezala, ariketa prak-

tiko bat egin beharko dute ikasleek: "jendeak beti laburmetraia bat, bideo-klip antzeko gauzak eta horrelakoak egin nahi izaten ditu eta erreportaiak, adibidez, ez dago baina esplotatuta eta askotan irtenbide gehiago eskaintzen ditu. Hor ere aukera ezberdinak egon daitezke. Dena den, askotan material aldetik murriztuta geratzen gara ikastaro espezializatuei begira eta bideoare-

kin lanean jarraitu nahi dutenentzat, kontutan izanik gero eta jende gehiagok azaltzen duela bideoarenganako interesa" Amaiaren hitzetan.

Astean 6 ordu emango dira (7 laguneko taldeak) eta matrikularen prezioa 4.000 pta.koa izango da. Izena emateko azken eguna ekainaren 26a, eta interesatuek Kultur Etxera edota 76 44 46 eta 76 07 53 telefonoetara jo dezakete.

**Astean 6 ordu emango dira, eta matrikulak 4.000 pza. balioko du**

**MEMESA**

**P**  
phanton

**IRIMO**

ARRASATE 79 42 22 ARETXABAETA

SFK

**Bidaia honetarako**

Hauteskunde garaietan bezela partidu politiko guztiek emaitzen irakurketa egiten dutenean guztiak dira garaile. Guztiak egiten dute beraiei komeni zaien irakurketa, eta nola ez, aldamenekoaren aurkakoa.

1994ko maiatzaren 5ean Egin egunkariari esker, Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan "interbentzio gune partehartzailen" (NIP-IGP) diktamena ezagutzeko aukera izan genuen. Publiko egin eta berehala hasi dira "irakurketa propioak", hauteskunde kutsua hartzen ari da gai hau, denetarik entzun eta irakurri dugu, baina azter ditzagun horietako irakurketa batzuk:

- DEBASAK (Deba Bailarako Autobidea SA administrazioak diru publikoarekin Maltzaga-Urbina autopista egiteko antolatutako enpresa), esaten du datorren urtean autopista eraikitzen hasiko dela (urte hasieran aukera badago oraindik hobe), honela IGPetan erabakitakoa bultzatuko bailukete.

- Maltzaga-Urbina autopistaren aldeko "herri" plataformak, ildo berdinean egin ditu irakurketak, nola ez!. Prozesu guztian administrazioaren lan zikina besterik ez dute egin.

- "Barrikadaren" beste aldean, aldiz, eta goian aipatutako taldeek baino medio urriagoekin, HB, EA, Leintz Gatzaga eta Landako biztanleek, Eguzkik... irakurketa guztiz desberdina azaldu dute. Nik kaleko edozein biztanle arruntek bezala informazioa esku artera iristen zaidanean on-dorio propioak ateratzea izaten dut gogoko, eta aukera honetan, beste askotan

bezala, administrazioaren irakurketatik urruti gelditzen da. NIP-IGPetan parte hartu duten 303 biztanleen erabakiak oso garbiak izan dira, nire ustetan galderak ez dira hain garbiak izan.

Maltzaga eta Urbina artean zerbait egin behar da. Bai, baina zer? Hor dago kokxa. 30 lan edo ponentzietatik ondoen baloratuak izan direnak gaur egungo errepidean hobekuntza sakonak planteatzen dituztenak izan dira, beraz autopistaren aurka azaltzen zirenak (ponentzia hauek Leintz Gatzaga eta Landako biztanleek eta Eguzki talde ekologistak aurkeztu dituzte). Administrazioarena aldiz ez da batera ondo baloratua izan. Hau datu interesgarria izanik ez digu guztia esaten.Pasa gaitezen diktamena galdera zehatz eta ponentzia bitartez aztertzerara:

- % 38'94 gaur egungo errepidea hobetzearen alde azaltzen da.

- % 15'51 ardatz azkar bat egitearen alde.

- % 41'25 gaur egungo errepidea hobetu+ardatz azkarra egitearen alde (autopistarik ez).

- Eta Bilbo-Behobiako autopistaren peajearen luzapenari? NIP-IGPetan parte hartu dutenek ezezko borobila eman diote. Beraz, eta diktamena erabakiorra izango balitz 2003 urtetik aurrera autopista hau erabiltzearen ez genuke deus ere ordainduko. Baina administrazioak zer egingo du? Peaje honen luzapenaren bitartez Maltzaga-Urbina autopistaren zati handi bat ordaintzeko asmoa zeukan. Orain nondik aterako du dirua? Edo akaso herritarren nahia berriro betetzeke utzi eta 2020 urterarte luzatuko dute peajea?

Ez dut ezer ulertzen. Administrazioaren maniobra garbi ikusi nuen hasieratik. NIP-IGPak martxan jarri zituzten herri mugimenduaren ahotsa isilarazteko, garbi zeukaten bailarako biztanlegoa autopistaren alde azalduko zela (badaezpada Gasteiz eta Donostia tartean sartu zituzten), medio eta diru ugari gastatu zituzten DEBASAKo ponentzia prestatu eta azaldu ahal izateko gune desberdinetan (bideo eta guztiz), baina azkenean, ezustean, beraien batailatxoa galdu egin dute.

Alperrik datoz orain, Roman Sudupe, Josu Bergara eta administrazioko buru guztiak NIP-IGPak autopistaren aldeko erabaki garbia hartu dutela esanez. Gaia gertutik ezagutu eta bizi dugunok garbi dakigu beraien estrategiaren pausoak besterik ez direla. Mesedez jaunok, serioak, garbiak, zintzoak izan zaitzete eta behingoz herritarrei kasu egin iezaiezue!..... Ez ziren behar horrenbeste alforja

AITOR ARANZABAL

**Zorionak!**

Zorionak Antzuolako Udalari, ehiztarien uso eta galeper tiraketa-hilketak egiteko baimen eskaerei ezetza eman ziolako, joan zen apirilaren 12ko udal batzarrean.

Honelako pausoak beharrezkoak dira gure gizartean, elkarrenganako eta inguruarekiko errespetuaren kulturari bidea ematen hasteko. Zorionak!

MENDIA BIZIRIK

**Tiira biraka**

J.M. EZENARRO



# Azokako postuak jabeen zai

## Ostiraleko Plenoan baldintza pleguak onartu ziren

Ostiraleko Plenoan, EAJ eta PSE-EEren aldeko, EAren abstentzioa eta HBren kontrako botoekin, azoka berriko postuak adjudikatzeko baldintza pleguak onartu ziren. Postuak adjudikatzeko erizpideak honako hauek izango dira: postu bakoitzak salduko dituen produktuen salmentan esperientzia izatea kontutan hartuko da, 3 modulotako postuen eskaririk lehentasuna izango dute modulo bat eta biko eskarien aurrean, modulo kopuru bera eskatuz gero oferta ekonomiko onena izango da kontutan lehenbizi eta, puntu honetan ere koinziditezkotan, zozketa bidez adjudikatuko dira postu ezberdinak. Esperientzia kontutan izango dela dioen puntuaren inguruan, Juan Mari Garitanoren (EA) ustetan, "lanean basten direnei oztopoak jartzen zaizkie". Juan Kortabarriak (HB) esan

zuenez, "oraingo komertziantek zelabait sartzeko hartu da erabaki hori".

Komertziantek kontratua sinatzen duten momentuan kostoaren % 37,5a ordaindu beharko dute eta gainontzeko % 62,5a gehienera 10 urte-

tan zehar. Modulo batek 4.000.000 pta. balioko du, 2 modulok 7.800.000 eta hiruk 11.500.000 pta. balioko dute.

Bestalde, Zerrajarako lehengo eskonbreran DAR (Depósito Alternativo Residuos) jartzeko Altos Hornosek Udalari

lursaila bat utzi dio 10 urtetan. Azkenik, Antzuolako bidean eta San Antonion ziren AFA eta Otazuako aurri industria-lengatik Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren maileguak jaso ditu Bergarako Udalak.



Postuak ekainean eta uztailean adjudikatu ondoren, azoka berria irailean zabalduko litzateke.

BIZKOTYOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

**BERGARA**

**POL-POL**

TABERNA

☎ 76 07 78

**DEPORTIVO**

TABERNA

☎ 76 01 51

## ◆ Txakurren txertaketa eta mikrotxipa jartzea

Udaleko Osasun eta Ongizate Sailak kaleratutako notaren arabera, "Udalerrri honetako txakur jabe guztiei jakinarazten zaie Foru Araua dela medio, 1994 urtean ez dela ohizko txakur txertaketarik egingo ez auzoetan ezta Udalerriko gainontzeko tokietan ere. Hori dela eta, euren txakurrak amorraren aurka txertatu nahi dituztenak (Gipuzkoan ez da beharrezkoa) edozein Albaitaritza Klinikatan egin dezakete edo baita albaitariren bati norbere etxera joateko eskatuta. Gogorazten da baita 1995eko urtarrilaren 1erako txakur guztiei identifikazio mikrotxipa jarri beharko zaiela derrigorrez. Mikrotxipa jartzea, Gipuzkoakoo Foru Aldundiaren baimena duen edozein Albaitaritza Klinikatan egin daiteke".

## ◆ Erakusketa

Bergarako Jubilatuek egindako eskulanen erakusketa ikusgai izango da ekainaren 26ra arte Kultur Etxean.

## ◆ Miserableak

Musika Eskolaren "Miserableak" ikuskizuna Arrasateko Amaia antzokian larunbatean 22.30etan.



Orainarte bezala jarraitzekotan, Correoseko langileek irailean greba egin dezakete.

## Correoseko langileen protesta

*Posta publiko on baten aldeko konzentrazioa egin zen*

CC.OO, UGT, ELA eta ESK sindikatuen deia erantzunez, Correoseko langileek "posta publiko on baten aldeko" konzentrazioa eta 10 minutuko paroa egin zuten atzo goizean. Posta zerbitzuaren ondorena zihurtatzeko, "konpetentzia ez lehiala eta intrumisiao baztertuz merkatua erregulatzea beharrezkoa dela" uste dute Correoseko langileek.

Correoseko langileek zera zabaldu nahi die herritarrei: "posta monopolioaren neurriak europar mailara igotzeak gainean dugun

defizitarekin bukatzera darama. 60.000 langilez osatutako enpresa hau errentagarria bilakatuko litzateke. Bestalde, gaur egun, posta tarifak Europako merkeenak dira eta gure posta zerbitzuak beste inork baino Estatu finantziario gutxiago jasotzen du. Zerbitzuaren kalitatea hobetu da eta gure produktibitatea haundienetarikoa den bitartean, Europako Ekonomi Elkarteko soldatarik baxuenetarikoa jasotzen du posta banatzaile batek (azken 3 urtetan ez dugu igoyerarik izan)".

# EDEL

## TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14, BERGARA**

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

# ANTIA

## ARATEGIA URDAITEGIA

**Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.**

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

# TABERNA ZAHARRA

## Jatetxea

## Bazkariak eta afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR





Pasa den astean hasi ziren Amilagan IAT estazioa egiteko obrak.

## IAT-ITV estazioa martxan

### Urrira arte behin behineko tailerra izango da zabalik

Aurreko astean Ibilgailuen Azterketa Teknikorako estazioa egiteko obrak hasi ziren Amilagan, orain tailer probisional dagoen toki parean (San Lorentzoko autobus geltokiaren atzetik). Tailerra jartzeko Eusko Jaurlaritzaren kontzesioa duen IAT Luybas S.L. enpresaren ustetan, "lanak irail aldera amaitzea espero dugu, lokal berria urrian zabaldu ahal izateko". Tailer berriak, printzipioz, ibilgailuen azterketarako bi karril izango ditu baina, ibilgailuen eskariaren arabera, hirugarren bat

jartzeko aukera egongo da. Ibilgailu arin zein astunak pasa ahal izango dira bertatik eta Luybas S.L., inguruko udalekin akordio batera iritsi da, nekazaritzarako ibilgailuentzako bi unitate mugikor martxan jartzeko.

Gaur egungo tailer probisional San Lorentzoko 44 zenbakiko pabiloian, Santalaitzen zabalik dago otsailetik eta momentuz 3.500 Kg.tik beherako ibilgailuei zuzendutako karril bakarra dago. Lehenbizi txanda eskatzea komeni da 76 04 90/91 telefonoetan.

### ◆ Bertso paperak

Idolaz Antzuolako euskara elkartearen III. Bertso Paper Lehiaketan, 11 urtera arteko kategorian Hodei Letek irabazi eta Kepa Igarzak bigarren saria eskuratu du; 11 urtetik 14 urtera artekoen artean, Jone Lete izan da irabazlea eta nagusietan, Josue Madariagarentzat izan da lehen saria eta Akinaorentzat bigarrena. 40.1an aurkeztu dira.

### ◆ Epaiketa berri bat

Asteazkenean Jesus Mari Kalboetxeaga intsumiso bergararra epaitu zuten Donostian. Fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du.

### ◆ Sor Eufemiaren oroimenezko meza

Bihar larunbata Sor Eufemia Barriusoren oroimenezko meza izango da Erresidentziako Milagrosa kapillan 18.00etan.

### ◆ HIES Ekimena

Deba Garaiko HIES Ekimena Batzorde Herritarrek iraila eta urrian antolatu nahi dituen ihardunaldiei begira, zozketa bat antolatu du. Datorren astetik aurrera boletoak 100 pta. tan jarriko dira salgai Pol-Polen eta kalean eta Parisera bidaia bat zozketatu da.

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

# ederTU

ALTZARIAK



# ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

# TXUKUN

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

# TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorenzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT



## Txinpartak

### ABSTENTZIO ALTUA

Igandeko hauteskundeetako emaitzei gainbegirada bat ematen badiogu, abstentzio altua azpimarratu dezakegu. Bergaran botoa ematera joan ez direnak (% 50,3) bozkatu dutenak baino gehiago izan dira.

### BOTO GUTXIAGO

Abstentzioak ia alderdi guztietan izan du eragina, EB-IUk (73 boto gehiago) izan ezik beste guztiek iazko Estatu mailako hauteskundeekiko, botoak galdu egin baititu. Gehien galdu dituen PSE-EE izan da (645 boto) eta gutxien PP (75 boto). HBk 593 galdu ditu, EAK 473 eta EAJ-PNVk 410.

### BOTO ZURIAK GORA

Boto zuriek eta baliorik gabekoek gora egin dute hauteskunde hauetan, aurreko Europako Hauteskundeekin konparatzen badugu. 1987 eta 89ko Europako Hauteskundeetan 20na boto zuri eta baliorik gabeko boto zenbatu ziren Bergaran. Igandeko bozketetan, ordea, 104 boto zuri eta 29 baliorik gabeko.

### ZENTSOAK BEHERA

Botodunen kopuruari dagokionez, iazko Estatu mailako hauteskundeekiko behera egin du zentsuak Bergaran. Iaz 12.863 bergarar ziren botoa emateko aukera zutenak eta aurten, berriz, 12.726.

## Bergarako emaitzak zonaldeka

	ERDIALDEA	MATXIATEGI	IBAIONDO	MARTOKO	IBARRA	OSINTXU	GUZTIRA
HB	830	324	215	244	222	125	1.960
EAJ-PNV	882	225	193	239	116	103	1.758
EA	491	150	60	99	71	25	896
PSE-EE	242	158	84	157	18	11	670
PP	224	77	29	53	20	11	414
EB-IU	178	60	50	79	18	8	393
BESTE BATZUK	38	24	11	21	1	4	99
ZURIAK - BALIO GAB.	61	27	19	17	6	3	133
BOTOAK	2.946	1.045	661	909	472	290	6.323
ABSTENTZIOA	% 47	% 49	% 53	% 53	% 55	% 48	% 50,3
ZENTSUA	5.668	2.061	1.427	1.956	1.052	562	12.726

## Europako Hauteskundeak bototan

	HB	EAJ	EA	PSE-EE	PP	EB-IU	BESTE BATZ.	ABST.	ZENTS.
<b>1987</b> EUROPA	3.014 % 33,98	1.953 % 22,01	1.653 % 18,63	1.679 % 18,61	259 % 2,92	44 % 0,50	251 % 2,83	% 28	12.306
<b>1989</b> EUROPA	2.516 % 22,01	1.589 % 20,68	1.430 % 18,61	1.448 % 18,85	199 % 2,59	114 % 1,48	366 % 4,76	% 39	12.555
<b>1993</b> OROKORRAK	2.453 % 29,66	2.168 % 26,21	1.369 % 16,55	1.315 % 15,90	489 % 5,91	320 % 3,86	156 % 1,88	% 34	12.863
<b>1994</b> EUROPA	1.960 % 31	1.758 % 27,80	896 % 14,17	670 % 10,60	414 % 6,55	393 % 6,22	99 % 1,57	% 50,3	12.726

## EKIN AKZIOEKIN !!

**EGUNKARIA, Euskal Herrian kaleratzen den periodiko euskaldun bakarra, kapitala haunditzeko akzio salmenta kanpaina buru belarri ari da. BERRIGARAK, duen ahalmenaren arabera, kanpaina horri bultzadatxo bat eman nahi izan dio, zu ere, irakurle, akziodun egin zaitez.**

## Denon EGUNKARIA

Eskerrik asko BERRIGARAKo kideei aukera hau eskaini diguzuelako eta agur beroa bergarar guztioi. EUSKALDUNON EGUNKARIA kapital haunditze batean sartua dago. 200 milioiko kapitalera iritsi da hiru urte t'erdiko ihardueran. Beste ehun behar ditugu orain etorkizunari behar bezala heltzeko. EGUNKARIAren izaera defizitarioak, ia erabateko dirulaguntza ezak eta publizitate instituzionalaren blokeoak, Egunkaria Sortzen-eko garaian bildutako diruak xahutzea ekarri digu. Ez da makala krisi garai hauetan irautea bera!

Eta erronka haundiak dauzkagu aurrean (azpi-egitura, hobekuntzak



**Iñaki URÍA**  
EGUNKARIAKO KONTSEILARI  
ORDEZKARIA

produktuan...). Egia da Eusko Jaurlaritzarekiko akordioa behin ere baino hurbilago dagoela, baina honek ez du dena konponduko. Herri ekimen eta erakundeen elkarlanari ekiteko orduan ezinbestekoa da zure partaide-tza. Akziodun eginez, EGUNKARIAren partaide izango zara. Zeurea ere izango da EGUNKARIA. Eta horixe dugu helburu: ahalik eta ondoen, euskaldun guztien EGUNKARIA egitea. Anima zaitez!





Fermin Lazkano, Egunkariako gerentea:

# "Egunkariaren geroa ziurtatzeko ordua heldu da"

**Fermin Lazkano bergararra Egunkariaren gerentea da. Berarekin izan gara euskara hutsean argitaratzen den egunkari bakarrak martxan jarri duen akzio-salmenta kanpainaren nondik-norakoak kontatu dituzan.**

- Egunkaria lau urte betetzear dago, ze eritzi duzu horri buruz?


- Lehenik eta behin, denak ekimen historiko batean murgildurik gaudela uste dut. Gerra garaiko Eguna egunkariak egin zuenaz gain Euskaldunon Egunkariarena besterik ez dago eta. Euskararen garapenean gelarazitako denbora berreskuratzeko komunikabideen arloa azkenetakoan izan da pizten, batez ere idatzizko komunikabideena, eta alde horretatik eskaintzen dio zerbait Egunkariak euskal gizarteari. Helburua egunero, ahalik eta era normalizatuenean eta euskaraz, jakina, gizarite moderno batean behar den informazioa bidean ipini eta euskaldunei eskuan jartzea dugu. Helburua lortze bidean dago baina zein neurritan eta bidearen zein tokitan gauden irakurleek eurek esatea hobe.

- Irakurleak aipatu dituzu, ze erantzun izan duzue irakurlearen alde-tik?

- Irakurlearen erantzuna ona dela uste dugu. Hasieran hiru hipotesi egiten ziren salmenta kopurari dagokionez eta onenaren mailan gaudela esan behar. Hala ere, hiru urte t'erdigaro eta gero hobetu beharrean gaudela uste dut. Une honetan hurrengo hiru urteetako plangintza egiten dihardugu eta bai azpiegituretan, bai langilearen baldintzetan eta batez ere produktuaren kalitatean aurreratu nahi dugu nabarmenki eta hori lortzeko irakurlearen bultzada behar dugu beste gauza batzuen artean. Batez ere irakurle berriak inguratu behar ditugu.

- Zergatik hasi duzue akzio kanpaina?

- Kapitala bilatzeak hiru arrazoiri erantzuten dio.



"Aurrera begira irakurle berriak inguratu nahi ditugu"

Batetik, egunkariaren geroa ziurtatzeko bidean sortzen diren arazoei aurre egin ahal izateko, ezin dugu ahaztu eta egunkari batek

oso zaila duela aurrera ateratzea normalean eta beraz euskarazko "txiki" batek zailago. Gogoratu, bide batez, azken urteetan hemen

---

**"Produktuaren kalitatean aurreratu nahi dugu eta hori lortzeko irakurlearen bultzada behar dugu"**



saltzen zirenen artean ba-  
direla dozena erdiren bat  
egunkari ateak itxi behar  
izan dituztenak eta gu lau-  
garren urteurrenaren bide-  
an goazela. Eta azkenik,  
Egunkariaren jabetza anit-  
zagoa izatea nahi dugu.

**- Nola lor daiteke ja-  
betza aniztasun hori?**

- Akzio bat erosten du-  
ena Egunkariaren jabe bi-  
hurtzen da eta batzarreta-  
rako boto bat eskuratzen  
du. Horrela gure asmoa pe-  
riodikuaren jabetza ahalik  
eta esku gehienetan egotea  
da -hasierako erabakia da  
berori- eta horrela herrita-  
rragoa izango garela ziur  
gaude. Irakurleari, euskal-  
tzaleari edota erdalduna  
izanik ere euskarak komu-  
nikabideetan aurrera egin  
dezan nahi eta bide batez  
erabakietan parte hartu  
nahi duenarentzat aukera  
ederra da kapital handitze  
hau.

**- Eta zenbat balio du  
akzio batek?**

- Akzio bakoitzak  
25.000 pzta. balio du, ak-  
zioko diru kopuru hori.  
Baina kopuru hori ez du  
pertsona bakar batek zertan  
ordaindu beharrik, elkarte  
batek osatu dezake edota  
lagun kuadrila batek, fut-  
bol talde bateko lagunek...  
(Bergaran Arrano, Kortar-  
zar eta Pol-Pol tabernetan  
eta Pertxa eta Artatse el-  
karteetan eros daitezke)

**- Ze baldintza bete be-  
har dira Egunkaria egu-  
nero kioskoetan izateko?**

- Euskaldunon Egunka-  
ria herri honek euskaraz  
duen lehen egunkari mo-  
derno da, hiru urte t'erd-  
i bete du eta zailtasun eko-

## Algodoneratik Egunkariara


**Fermin Lazkanok 35 urte ditu. 1983tik Eibarren bizi da eta seme bat du. Egunkariaren gerentea 1991ko otsailetik. Lehenago Algodoneran, Tavesan, Narbaizan eta Imprecin ibilia. Soldaduskatik etorri eta ikasturte batez igeritokietan jardun zuen umeei igerian erakusten. Ondoren AEKn zortzi urte eman zituen.**

nomiko giro orokor hone-  
tan hurrengo hiru urteei  
ekiteko irrikitan dago. Ho-  
rretarako baldintzak baina,  
bertako langilegoaren kon-  
promisu eta gaitasunaz  
gain, irakurlegoak eran-  
tzun eta berriak hurbiltzea,

instituzio publikoek euska-  
raren aldeko politika posi-  
tibo bat egitekotan euska-  
razko komunikabideei be-  
har bezalako laguntzak  
eman eta edozein boikot  
ankerri amaiera ematea,  
ahalmen teknologikoa eta

enpresari izatea eta Egun-  
kariaren jabetza ahalik eta  
euskaldun gehienen esku  
egotea dira. Kapital handi-  
tzea, batez ere, azken bi  
baldintzak ziurtatzeko egin  
dugu eta orain euskaltza-  
leen esku dago erantzuna.


**"Akzio bat erosten duena Egunkariaren  
jabe bihurtzen da eta batzarretarako boto  
bat eskuratzen du"**



"Egunkariaren jabetza anizzagoa izatea nahi dugu"



# ZU ERE EGUNKARIAKO AKZIODUN




**Xabier Azkarate**

"Komunikabideek gaur egungo gizartean duten eragina ikusita Egunkaria behar-beharrezkoa dugu eta periodiko euskaldun bakarra egunero kioskoan ikusi nahi badugu, gure laguntza premiazkoa da. Goizero erosteaz gain, akzioen jabe izatea laguntza modu ona izan daiteke"



**Idoia Ilarduia**

"Orain dela bi urte inguru egin nintzen Egunkariako harpidedun euskarazko periodiko bakarra delako. Egunkaria erosi ala erdaraz irakurri... Orain, jendea animatu nahi nuke Egunkariako akzioak erosteko, egin daitekeen inbertsiorik onenetarikoa delako, fruiturik emankorrena lortzeko"



**Josu Okina**

"Euskara aurrera atera nahi badugu euskal egunkaria behar dugu. Euskaraz egindako prentsak beste hizkuntza batean egindakoak baino laguntza gehiago behar ditu eta, zoritxarrez, laguntza murriztak ditu, horregatik akzioak erostea laguntza modu ona izan daiteke"



**Eli Ugarte**

"Euskal prentsak herritarron laguntza beharrezkoa du. Ikasleekin Egunkarian agertutako berriei buruzko lanak eta komentarioak egiten ditugu. Gustora irakurtzen da, pena bakarra astelehenetan faltan botatzen dugula, baina hau konpondu nahi badugu lagundu egin behar diogu"



**Xabier Larrañaga**

"Laguntza eta esperientzia gutxi duen medio bat dela kontutan izanik, periodiko itxurosoa da Egunkaria. Eritzi aldetik ere, informazio aniztasuna lortu du eta beste egunkari batzuk baino zabalagoa dela iruditzen zait. Bizitza luzea izan dezala zure esku dago, egin zaitez akziodun"



**Karmen Urrutia**

"Egunkariak frogatzen du euskarak ere balio duela gaztelerak betetzen dituen funtzioak betetzeko. Informazioarekin beste horrenbeste gertatzen da. Zoritxarrez diru asuntoetan oraindik ere herritarren beharra dago horrelako proiektuak bulzatzeko"

## Ekologia

# Jentilen zabortegia

### - Ze ondorio dakar zaborrarak?

- Gure bizimoduaren ondorio negatiboetako bat, edozein ihardueratan sortzen dugun zaborrena da. Kutsadurarena (zaborrak) eta ingurugiroaren degradazio mota desberdinena da, herrialde aurreratuenetan daukagun ekologi-arazo larrienetako bat.

### - Zer dio legeak horren inguruan?

- Lege asko egin dira arazoari aurre egiteko, zerbitzu desberdinak martxan jarri e.a. Dena den, esan beharra dago oraindik leku izkutueta botatzen den zaborra asko dela. Gaurkoan, horren adibide bat ekarri dugu hona, Bergara eta Antzuolan bizi garenontzat oso gertukoa: Burdikurutz inguruan gertatzen ari dena.

Bergararik Antzuolara bidean, Ilunpe izeneko inguruan, Galartza errekatxoa dago. Errekatxoa goruntz jarraituz, Antzuolako lurretan, harrizko gurutze bat duen harri berezia dago: Burdikurutz.

Ahaztuta daukagun in-

guru hau kondaira ugari kokaleku izan zen garai batetan: gurutzea eusten duen harria jentil batek bota omen zuen Ugasari aldetik, Ilunpe ingurua sorginen bizileku izan omen zen eta gainera, ondotik pasatzen zen Errege Bidearen inguruan, garai bateko lapurrek



Burdi-Kurutzeko harria jentil batek bota omen zuen.



**IÑAKI IRIZAR**  
(biologoa)

ere nahikoa abentura egin omen zituzten (Errege Bidearen azken aztaran den zubia, Lapur-Zubi deitzen da oraindik).

### - Zer gertatzen da gaur egun?

- Gaur egun inguru hau zabortegi izugarri bat bihurtu da. Kamioiak bertara erraz sartu izan dira (eta sartzen dira) obratuko hondakinak "ezkutatzer", eta horrela, inguru horren itxura benetan penagarria da orain.

Arazoa ez da berria. jadanik 1978. urtean Pol-Pol elkarteko Gazte taldekoak ingurua garbitu eta txukuntzen ibili ziren. Urte haretan ere zaborrak eta eskonbroak aurkitu zituzten, eta egun batzuetako lana behar izan zuten dena jasotzeko. Baina ordutik hona zaborra botatzen jarraitu da eta gaur egun ez da nahikoa lagun talde bat Burdikurutz ingurua garbitzeko, hondakina asko pila-tu delako.

### - Eta orain, zer?

- Inguru oraindik oso erakargarria da; gurutzea eta jentil-harria hor daude, errekatxoa garbia dago, lekua edertzen duten aritz, astigar eta urritzak hor daude. Horregatik zera eskatu nahi diogu Antzuolako Udalari: jentil-harria eta bere inguruko kondairak ere hondakin bihurtu baino lehen, inguruaren errestaurazio sakon bat egitea, eta horrekin bat, bertako ingurugiroa, historia eta kondairak behar bezala errespetatzeko eta ezagutzera emateko behar diren neurriak onartzea.



## KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9 ETATIK ZABALIK**

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62

## MAKAILO

Makailau  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

# Elurretan irristaka

## SNOW BOARD

*Gero eta bergarar gehiagok egiten duten kirola*

Hurrengo lau orrietan Iñaki Andueza, Jesus Galdos, Zigor Lizarraga eta Luis Mari Alberdik Aneto mendia Snow Board tablekin aurtengo pazkuetan jeitsi zuteneko esperientzia irakurtzeko aukera izango duzue. Halaber, azaletik bada ere, Snow Boardaren (tabla baten gainean elurretan irristaka), inguruko beste kontu batzuk aipatzen dizkizuegu. Kirol honek gero eta zaletu gehiago ditu Bergaran eta urteko sasoi honetan praktikatu daiteke, Piriniotako gailurrik altuenetako maldetan esate baterako.

**S**now-Board edo tabla gainean elurretan ibiltzea Estatu Batuetan sortutako kirola da. Estatu Espainiarrera duela 6 urte in-

guru heldu zen eta bergarrek duela 4 urtetatik hona gogoz hartu dute kirol hau. Gaur egun gure herrian adin ezberdineko 30 lagun inguru joaten di-



Jesus Galdos eta Zigor Lizarraga Anetora bidean.

**ONENA**  
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



ra astebururo Astun aldera. Bertan txapelketetan parte hartzen dute eta Asier Linazisoro bigarren postuan sailkatu da Euskadiko txapelketan eta Espainiako Ballantines proban ere postu onak lortu ditu.

Gainontzeko bergararrak ere hainbat txapelketatan aritu izan dira eta Ana Molinak, hirugarren postua lortu zuen Euskadiko txapelketan eta Aitor Delarriverette gazteak Astunen jokaturako club

arteko lehiaketan ere garaipea lortu du. Snow-Board tabla normal batek 40 mila pzta balio du eta Iñaki Anduezak dioskunez. *"Tablan hasteko onena federatzea da eta eskiekin ibiltzea baino errazagoa da. Tablaren hobekuntzak askoz lehenago igaritzen dira eta askatasun gehiago ematen du".*

Norbaitek tablan hasi nahi baldin badu, herriko Snow-Board zale hauekin harremanetan jar daiteke.

## Palilleroak eta surferoak

**Snow Boardean zerbait ikasteko astebeteko ikastaro bat eginez asko ikasten da. Tablei dagokienez, bi mota daude: half pipeak, skaterrak bezala aritzeko balio du eta beste tabla batzuk, bota gogorrekoak, slaloma eta mendiak jeisteko erabiltzen dira. Bota ahuleko tablek mugikortasun gehiago ematen dute eta azken hauek dira gaztetxoan artean arrakasta gehien lortu dutenak. Abiadurari dagokionez tablek eskiek baino abiadura gutxiago hartzen dute eta horretan "palilleroek", eskiekin aritzen direnek, "surferoekin" alderatuz abaintailak dituzte. Snow Board zaleek "nieve virgen" delakoa dute gogoko eta ski pista normalak alde batera uzten dituzte, beste leku batzuk bilatuz jeitsierak egiteko.**

# PIRINEOTAKO GAILURREAN

TESTUA: IÑAKI ANDUEZA  
ERREDAKZIOAN ITZULIA

**Negua bukatutakoan** eskizaleek euren ekipoak gorde behar izaten dituzte. Guk, ordea, zeharketa-eski, piolet eta abarrez baliaturik, ekainerarte luzatzen dugu denboraldia. Aurtengo elurte berantiarrek parada ezin hobea eskeini digutez, estazioak itxi eta hamabost egunera Maladeta mendigunean kokatuta dagoen Aneto aldera irten dugu.

3000 metrotik gorako tontor asko daude inguru horretan eta Aneto dugu denetan garaiena (3404 m.), aldi berean Espainiako bigarrena delarik. Gure helburua mendi honen glaziarra jaistea da, batzuk "surfeatz" eta besteek eskia-tuz.

Jaitsiera ez dugu goreneko gailurretik egingo, aurrekotik baizik, Mahomaren zubitik alegia.

"Mendian beldur ez denak ez du berau menderatzearen plazerrik nabarituko"

liki-poliki dena aldatuaz doa.

Arratsaldea, eguraldi desatssegina eta tontorrek lainopean ditugula eroritako Benasqueko ospitale zaharrrera iritsi gara. XII. mendean ibiltarientzat atsedeneku zen toki hau gaur egun aterpe-hotel bihurtua dugu. Bailararen behealdean kokatua, 1750 m.ra, guri ere babesa emango digu gauean.

Kanpoan ez du atertzen, baina bertako instalazio eta zerbitzu modernoek eta, no-la ez, jendearen harrera be-

Maiatzak 21, larunbata. Bergararik irten, Etxarri-Aranazen Zigor jaso eta zenbait geldiune egin eta hainbat bide eta zubi igaro ostean, Benasquera iritsi gara. Aldatuaz doan herria dugu hau, turismoari bideratuta egiten diharduten eraikuntzak, bertako-bertakoak diren etxe eta karrika estuekin nahasten dira. Po-

**KONDE**  
  
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

**ARREGI**  
**Eraikuntza materialeak**  
Biltegia Teileria ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auza

roak ederki sentitu eragiten ditugute.

Maiatzak 22, igandea

Bart eta goiz osoan atertu ez duenez, berandu aterratzea erabaki dugu, eguerdiko 12etan alegia.

Plan d'Estany (1790 m.) aldera abiatu eta bertatik elurrak basoa estaltzen duen goiko lagunera. Hemendik Pico de la Renclusa deritzona ikusten da, beraren magaletik izen bereko aterpetxeraino (2140 m.) igo gara. Arratsaldean, proba egin nahian, Pico Diente del Albara (2700 m.) igo eta bertatik egin dugu jaitsiera. Beharkean ondo moldatu garenaz, pozik eta biharamunerako itsaropentsu geratu gara.

Maiatzak 23

Goizeko 6ak, motxilak gertatzeaz gain, beste zeregin bat ere badugu oraingoan, snowboard tabla bizkarrean jartzea alegia. Nola jarri? Galdetzen diogu geure buruari Zigor, Jesus Mari eta nik. Azkenean batak zutik eta besteak etzanda. Dena den, berehala konturatu gara, batera zein bestera, eramaten deseroso samarrak direla, baina...

Oraindik argitu ez duenean Portillón Inferior deritzona (2815 m.) hurbiltzen

doazen argitxo batzuk ikusi ditugu, zeharketa-eskiekin doazen mendizale batzuk dira.

Hortxe harrapatu gaitu egunsentiak, eta poliki-poliki altura irabaziaz, goizeko

Gainera, kontuz ibili beharra dago. Horrela, ekialderantz jo dugu, gero eta gorago, Coronas leporaino (3175 m.). Hauxe dugu Anetoren eta hegoalderago dagoen Coronas glaziarren arteko

rista ugarien igarotzeak boroildutako heldulekuak. 15 metroko pasu honetan beldurrik ez izatea komeni da, erdialdean kontu haundixegoa behar duen tarte bat baitago. Behin hau pasatu-



Argazkian, Bergarako Snow Board zale talde bat.

8etan Portillón Superior izeneko lekuan (2908 m.) gaudete. Dagoeneko begibistan dugu glaziarra, zoragarria da. Baten batek atera dio erretraturen bat edo beste.

Kanal batetik jaitsi beharra dugu. Luis Mari erraz asko joan da bere eskiez; gu polikiago, tablak ez baitira hain zuzen oso egokiak horrelako pasabideetarako.

berezko igarobidea.

Erlaiz ikusgarri honetan zerbait janaz indarrak berreskuratzen saiatu gara, 45 minutura besterik ez dago gailurra eta. Hemendik aurrera bidea oso argi dago, glaziarri jarraitu eta gorantz egin, Mahomaren zubia deritzon laguneraino iritsi arte. Elurrez betea dago berau, agerian daude tu-

takoan, Centro Excursionista de Cataluña delakoak jarritako aluminiozko gurutzaraino iritsi gara. Hauxe dugu gailurra. Zigorrek, pozaren pozez, besarkatu egin nau. Beraren lehen hiru milakoa da eta seguraski berak, gazteenak (18 urte) eta nik, helduenak (46 urte), osatzen dugun kordada izango da Anetora elkarrekin "surfea-

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## EGUREN GESTORIA

**Maria Pilar Eguren Diez**  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45



Kirol ikusgarria dugu Snow Board-a. Asko dira eskiak albora utzi eta tabla bakarrarekin elurretan ibiltzen direnak.

tzera" doan lehena. Poza-  
rren gaude.

**Mendiko surfa  
desberdina da**

Badira zenbait gauza gu-  
re bizitzan arrastoa laga-  
tzen dutenak, ohizkoak bai-  
no sentsazio biziagoak sor-  
tarazten dizkigutenak eta  
sasoi honetan mendi gara-  
ietan neguko elurretan sur-  
featu ahal izatea da horie-  
tako bat. Paisaia zoragarria  
da, gure azpian Maladetako  
gailurrak, urrunago Pirinio  
frantziarra eta beherantz  
begiratuta, gure helmuga.  
Basoraino jaitsi nahi dugu.  
Oihu egin, lokarriak es-

tutu eta salto eginez behe-  
rantz abiatu gara, gure han-  
ka, beso eta gorputza bate-  
tik bestera mugitzen ditugu,  
aurrera, atzera...

Zeharo sentsazio des-  
berdinak sortzen dituzte ta-  
blek eta eskiek, teknika ere  
desberdina da eta snow Bo-  
arden artean ere alde haun-  
dia dago, tabla bakoitzaren  
ezaugarriek ez ezik elurra-  
ren egoerak ere baldintza-  
tzen baititu bakoitzaren  
erreakzioak.

Zigorrek, bere HALF-PI-  
PE tablarekin, liluratu egin  
gaitu erlaiz zuri ikaragarriet-  
an egiten dituen jauziekin,  
zeharoko trebezia eraku-  
tsiz. Bien bitartean, Jesus

eta nik, abiadura simetriko  
eta asimetriko tablekin, na-  
hiago ditugu abiadura eta  
bihurguneak jauziak baino.  
Gure ostean, eskiekin inoiz  
laga ezingo genukeen ma-  
rra perfektoa uzten dugu.

Bailarara iritsi gara,  
Arraunumeen zuloa deri-

tzon lekura. Hemen Anetotik  
datorren urak Aran baila-  
ran Garona izenarekin aza-  
leratuko den lurpeko erre-  
katxoa sortzen du, horrela  
Ebroren bidez Mediterrani-  
oan itsasoratu beharko li-  
tzatekeena, Atlantikoan  
itsasoratzen da, Frantzian.


**Partehartzaileak:**

- Zigor LIZARRAGA (Half Pipe Snow Boarda)**
- Jesus GALDOS ( Snow Board simetrikoa)**
- Luis Mari ALBERDI (Skiak)**
- Iñaki ANDUEZA (Snow Board asimetrikoa)**

**Guztira 1520 m.ko Jaitsiera.**

**Ibilbide sail samarra. Aldapa gogorak eta  
zailtasun alpinistikoren bat edo beste.**

**Aholkuak: Maiatza da garairik egokiena  
edozein motatako tablentzat. Ekaina, berriz,  
aproposagoa da slalomerako tabla  
gogorrentzat, batez ere asimetrikoentzat.**



Zigor Lizarraga, Iñaki Andueza eta Luis Mari Alberdi,  
Anetoko gailurrean.

**Pepelu**  
**Ileapaindegia**  
Zurradero, 2 behea.  
☎ 76 43 07

**AZPEITXI**  
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00  
**Jatetxea**

## Joango zinateke telebistara maitasun eske?



**Marcial Iruretagoiena**

35 urte, langilea

Ez nintzateke joango, uste dut gauza horiek intimitatean gorde behar direla



**Virginia De Miguel**

25 urte, langilea

Ez, ez, ez. Maitasuna topatzeko ez daukazu telebistara zertan joan, horrelako zirkoak antolatu beharrik ez dago.



**Ventura Nuñez**

30 urte, langilea

Bai gustora joango nintzateke, zergatik ez. Batzuei ondo joan zaizkie gauzak...



**Rosa Zabaleta**

40 urte, langilea

Ez nintzateke joango eta gainera ez dut telebistako programa jarraitzen, ez dut uste gauza interesgarriak aportatzen duenik Gemioen saio horrek.



**Elisabet Muguruza**

40 urte, langilea

Ez, ez nintzateke joango, zeure arazo intimoak jende aurrean kontatzea tontokeria hutsa dela uste dut.



**Maite Madariaga**

47 urte, etxekondrea

Telebistako programa hori ikusten dut, eta jendea maitasun bila telebistara joatea ondo ikusten dudan arren, ni neu ez nintzateke joango.

### ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Psikologia Gabinetea. BERGARA

KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (Haur, gaztetxo eta helduentzako)



**LOGOPEDIA-FONIATRIA**

- AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA.
- DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, laringea kendutakoak birgaitzea.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

• DISLEXIAK

- TOTELTASUNAK
  - AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenzefalikoak ondorioak, burmuin zainen gaitzak, encefalitiak.
- PSIKOMOTRIZITATEA**  
**ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK**  
**PSIKOLOGIA KLINIKOA**

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patiotik sarrera). ☎ 76 14 80.  
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.



## Gaurko liderrak

Ohizkoa izan da gure artean ideia bat zuen pertsonak tailer bat montatu eta handik enpresa bat martxan jartzea.

Gerora, gehitzen joan dira enpresa bat aurrera ateratzeko baldintzak, kalitatea, teknologia, antolaketa aldetik eta hazi edo desegin beharrean suertatu dira hainbat lantegi.

Egunero ikusten ditugun hainbat ekimen berri hor egon arren, agerikoa da enpresak egun ez direla pertsona baten agindura antolatzen baizik eta zuzen-dari ekipoa dela aurrean dutena.

Badirudi gaurko gizartearen ez direla hainbeste ikusten ingurukoaren artean nabarmentzen ziren aparteko jeinu haiek; hainbeste nabarmentzen ez diren norbanakoez osatutako taldeak dira proiektuak aurrera daramatzatenak. Egun, gure eguneroko bizimoduan eta lanean, lehen baino haundiagoa da elkarrenganako menpekotasuna.

Jeinu bat ez garenon kasuan premiazkoa dugu:

1. Bakoitzak lanari gogor ekitea, jakintsuek diotenez sormenaren osaketan dedikazioa omen da % 99a eta inspirazioa % 1a. Ea lanean harrapatzen gaituen inspirazioa datorrenean.

2. Ekipo lanaz baliatzea, elkareraginez talde lanak dituen abantailak gauzatu.

Jeinu bat ez garenok, norberaren lana eta talde lana dugu gaurko premiei erantzuteko modua.

**Rufina OLASAGASTI**



## Bakalaua, Sevillanak, patxangak

Ez da hilabete pasa Bergarako jaiak bukatu zirenetik eta beste hainbeste falta da Antzuolako jaiak hasteko. Beraz, oraindik denboraz nabil antzuolar tabernari adiskideei mesedetxo bat eskatzeko: euskal-musikari, Bergarako jaietan egin zitzaiona baino jaramon gehiago egiteko.

Izan ere, Bergarako jaietan eta taberna jakin batzuetan izan ezik, euskal-musikarik ez zuten jarri eta jarri bazuten, zaratarekin konfunditzen den horietakoa izan zen. Ez ote dago beste euskal musika martxosorik? Baietz esango nuke nik.

Txoznetan askotan izan nintzen, eguerdiz, arratsalde zain gauz eta ordu guztietan gauza bera: zarata nagusi, askotan zarata euskalduna zirudiena, baina beste askotan ez. Gainontzeko tabernetakoa ez zen hobe, txoznetako eskaintzaz gain, bakalaua, Sevillanak, mexikar doinuak etab. barra-barra, eta gero, trikitia, Oskorri edo Anje Duhalde eskatuz gero, norbera folklorikoa, karka, karroza eta ez dakit ze gehiago. Ze dituk ba lehen aipatutako beste horiek?

Lehen jausitako euriak ez duela bustitzen eta, aurrera begiratu beharrean gaude, hiru bat aste barru Antzuolako jaiakin topo egiteko. Flamenkona, mariatxi edo diskotekako makarra jantzi az irten beharko gaituk? Ezet espero diat. Bestela, etxean dudak panderoari hautsa kendu, eta garai batean bezala, lagunak erreklutatu eta grabadora besapean hartuta irtengo gaituk.

**Beñardo KORTABARRIA**

# INGELES-FRANTZESA

**UDAKO IKASTARO TRINKOAK**

- **NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 15era.
- **MAILAKETA PROBAK:** Ekainaren 17an.
- **MAILA GUZTIAK**
- **ADIN GUZTIAK:**

- Haurrak
- Gazteak
- Helduak

• **INFORMAZIOA:**  
Begarako UNED.  
(3. pisua) ☎ 76 06 87



## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



**Espainiako Txapelketara**

**Aritz Bikuña** 21 urteko bergarra ekainaren 23tik 27ra **Granadan** jokatu den Espainiako Gutxituendako Txapelketan izango da. Marka minimoa lortu (6 minutu eta 50 segundu) ondoren, slalom proban parte hartu ahal izateko txartela eskuratu zuen Aritzek. Orain, eta urte guztian zehar astean behin entrenatzen badu ere, asteazken eta ostiraletan gogor arit da lanean **Juan Carlos Castro** entrenatzailearen agindutara. Aritzek esan digenez,

*"partehartzearekin pozik nago eta lortzen dudana ongi-etorria izango da. Hori bai, zenbat eta aurrerago sailkatu, hobe".* Bestalde, pasa den astebukaeran Bera de Bidasoan jokatuako Euskadiko Gutxituen Boccia Txapelketan, taldekako proban, **Agustin Toledo** bergarra 2. sailkatu zen **Maite Etxezarreta** eta **Mario Rodríguezekin** batera.

**Selektibitatea**

Urretxu, Arrasate, Oñati, Legazpi eta Bergarako **340 bat ikaslek** selektibitate azterketa egin zuten astearte eta asteazkenez **Labegaraietako Kiroldegian**. Bergarako Ipintza Institututik **92 ikasle** (15 gaztelarako taldetik eta 76 euskarazkotik) aurkeztu ahal izan dira ekaineko deialdira. Beste 60 ikaslek (12 gaztelarako taldetik eta 48 euskarazkotik), geratu zaizkien materiak gaituz gero, irailean izango dute aukera. Aste honetan selektibitatea egin dutenei, berriz, datorren ostegunean jakin araziko zaizkie emaitzak.



340 bat ikasleren etorkizuna jokoan Labegaraieta kiroldegiko kantuan.

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**  
 Ibargarai, 2  
 ☎ 76 51 65

**ITXASMENDI**  
**Taberna**  
 Barrenkale 36  
 Tfnoa: 76 50 64  
**BERGARA**

**IZADI**  
**PILI GISASOLA**  
 Osasun eta Dietetikan  
 espezializatutako zentrua  
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83



**Intsumisoen eguna**

Larunbatean Intsumiso Eguna ospatu zen Arrasaten. Aurretik, Deba Bailarako herrietatik bizikleta martxa atera zen eta txirringularrak geldialditxoak egin zuten San Prudentzian. 50 pertsona inguru bildu ziren bertan eta **Gurutze Gorriko** edifizioan argazkian ikus daitekeen pankarta jarri zuten, Gurutze Gorriak Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko eskaintzen duen laguntzaren aurrean protesta egiteko. Ondoren, Arrasateko bidea hartu eta hainbat ekitaldirekin egun ederra pasa zuten Deba Behe eta Garaiko intsumisoek.

**Berrigarako erredakzioan**

Astehenean **Balzers Elay** enpresako ordezkariek izan genituen bisitari Berrigararen. Abuztu aldera Indian Indo Balzers enpresa zabaltzear omen dago eta bertako zuzendari izango den **Anand Badve** hemen izan da hiru egunez, Antzuolako Balzers Elayko funtzionamendua gertutik ezagutzeko asmoz. Gure erredakzioa ezagutzeko aukera ere ez zuen galdu eta, **Ramon Mendibil** Balzers Elayko zuzendaria eta **Alberto Biana** merkatal zuzendariaren laguntzaz, gure aldizkariaren berri jaso zuen.



**Zertan dibarduteba?**



**Agustin Aranzabal** 21 urteko futbol jokalaria bergararrak Realeko lehen plantilan jokatu du hurrengo denboraldian. Agustinek 3 denboraldi eman ditu 2. B mailako Realean eta orain, Javi De Pedro eta Inigo Idiakez gazteekin batera, lehen taldera igo du John Toshack Realeko entrenatzaileak. 1993ko otsailean Realekin La Coruñan debutatu zuenetik, Agustinek dagoeneko 4 partidu jokatu ditu Realekin. Bukatu berri den denboraldian 172 minututan izan da zelaian txuri-urdinekin A Coruñako Deportivo, Celta eta Albaceteren aurka.

**IGARZA**  
**MERZERIA**  
**LENZERIA**  
 Iraila, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**SUBIJAI**  
**Gazteentzako moda**  
 Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**ileapaindegia**  
**eder gela**  
**disdira**  
 Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

# Iñigo Gallastegi

**Konpetizio-igeriketa utzi zuenetik, Iñigo Gallastegi (21 urte) waterpoloan ari da jokatzeko Bergarako taldean. Bilbon, Sarrikoko Fakultatean Enpresaritzako 4. mailan ari da eta Fucking what! taldeko bateria dugu.**

- Zelan aurkeztuko zenuke zeure burua?
- Nerbio makina bat.
- Non eta zein talderekin jotzea gustatuko litzaizuke?
- Donnington Park-en (Inglatera) Metallicarekin.
- TBko musika programa bat?
- MTVko "Headbangers Ball".
- "Los 40 principales" entzuten duzu?
- Parean tokatu ezker, bai.
- Letrarik onena duen abestia?
- "One" (Metallica).
- Bateria jolerik onena?
- Lars Ulrich (Metallica).
- Euskadin, Su ta Garekoa.
- Zein taldetako kamisetak daukazu?
- Metallica, AC DC, Zaztada eta laister Fucking what!ena.
- Bandaren kontzerturen



*"Metallicarekin batera jotzea gustatuko litzaizuke; ez naiz sekula Bandaren kontzerturen batean izan eta igeri trabesiak ez ditut gustoko. Nahi baino gutxiago egiten dut lo eta politikan ez daukat konfiantza gehiegirik"*

- batean izan zara inoiz?
- Ez.
- Aldizkaririk irakurtzen duzu?
- "Crawl" eta Bergarakoak.
- Zein notizia jasotzea gustatuko litzaizuke?
- Agustin Aranzabal Realeko izar bihurtzea.
- Ur tragua pizinetan ala biharamona egunetan?
- Pizinetan txarra da...
- Uretako betaurrekoak ala eguzkitakoak?
- Uretakoak.
- Bermudak ala trajebainu estuak?
- Biak, igerian egiteko estuak, bestela bermudak.
- Zein travesia egingo zenuke?
- Ez zaizkit gustatzen baina Getaria-Zarautz ondo dago.
- Errubiak ala morenak?
- Morenak.
- Hiria ala herria?
- Herria.
- Konfiantzarik politikan?
- Askok ez.
- Azterketa garaian, etxean ala liburutegitan ikasi?
- Etxean.
- Txuletarik egiten duzu?
- Ez (barre).
- Zenbat ordu lo?
- Nahi baino gutxiago.
- Debildade bat?
- Juergak.



## IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Roberto Padilla

**ROBERTO PADILLAK** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko asteko galdera berak asmatu du eta. Canovas Del Castillo Santa Agedan hil zuen anarkistaren izena Angiolillo genuen eta 1897ko abuztuaren 20an hil zuten Bergarako kartzelako patioan. **Robertok** asmatu du eta berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Roberto,** eta besteek segi jokatzen.

***Zein auzotan aurkitu dezakegu santutxu hau eta auzo horretako jaietan zer bedeinkatzen dute?***

**Izena:** \_\_\_\_\_ **Abizena:** \_\_\_\_\_ **Tfnoa:** \_\_\_\_\_

**Saria:**  
**10.000 Pzta.**

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**

**Gipuzkoa:  
bihotz-bihotzean**




Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**



**kutxa**

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián



# IPINTZAKO

## nagusiendako III. futbol txapelketa

### A multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
MONGATXURRA	3	2	1	1	0	5	2
TXIPIRON	3	2	1	1	0	2	1
ALTOS PORNOS	2	2	1	0	1	6	1
BILDURBAREK	0	2	0	0	2	1	10

#### emaitzak

MONGATXURRA • TXIPIRON  
BILDURBAREK OPEL-LAM • ALTOS PORNOS

1 1  
0 6

### B multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
PAOK S. JUAN	4	2	2	0	0	7	1
OS JARDINEIROS	2	2	0	2	0	3	3
OSINTXU	1	2	0	1	0	1	1
Q-3	1	2	0	1	1	2	6

#### emaitzak

OSINTXU • PAOK DE SAN JUAN  
OS JARDINEIROS • Q 3

1 3  
2 2

### C multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
OGIZUN	4	2	2	0	0	5	3
AMILOTX	2	2	1	0	1	7	3
A ZE FLAXA	2	2	1	0	1	7	4
UFALA	0	2	0	0	2	2	11

#### emaitzak

A ZE FLAXA • UFALA  
OGIZUN • AMILOTX

5 1  
2 1

### D multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
EZINLEIKE	3	2	1	1	0	3	2
ARLOTEAK	2	2	1	0	1	3	1
ANGIOZAR	2	2	0	2	0	3	3
PIKAPIEDRAS	1	2	0	1	1	1	4

#### emaitzak

ARLOTEAK • EZINLEIKE  
PIKAPIEDRAS • ANGIOZAR

0 1  
1 1

### • partiduak •

#### Astelehena, 20

19.30: MONGATXURRA-ALTOS P.  
20.30: OSINTXU-Q 3

#### Astearte, 21

19.30: A ZE FLAXA-AMILOTX  
20.30: ARLOTEAK-ANGIOZAR

#### Asteazkena, 22

19.30: BILDURBAREK-TXIPIRON  
20.30: OS JARDINEIROS-PAOK

#### Osteguna, 23

19.30: OGIZUN-UFALA  
20.30: PIKAPIEDRAS-EZINLEIKE

### • komentarioa •



#### Felix BARROCAL

"A Ze Flaxa eta Ogizunek elkarren aurka joan zen asteen jokatu zuten partidua oso polita izan zen. Ogizun talde indartsua iruditu zait. Azpimarragarria era berean Ezinleike eta Arlotearen arteko ustekabea. Bestalde txapelketa honetako sorpresa Txipiron izan da nire ustez. Ekiporik beterranoena izan arren futbolik onena egin du orain arte."

### • golegileak •

#### 3 GOL:

- Saez De Maturana (Amilotx)
- Iban Agirrebeña (Altos Pornos)
- Bittor Jimenez (Altos Pornos)
- Iñaki Azpiazu (Os Jard.)

#### 2 GOL:

- Arroyo (Mongatxurra)
- J. Larrañaga (Arloteak)
- Nieto (Amilotx)
- Garikoitz Arregi (Paok)



# Lau bergarar Arrasate saskibaloit taldean

## Galizian izan dira lehen mailara igotzeko fasea jokatzeko

**Angel Iñarra,** Igor Urisabel, Mikel Garitano eta Aniotz Gabilondo bergararrak Arrasate Saskibaloit taldean ari dira jokatzeko. Euskadiko txapeladunek ezin izan dute aurreko astean Portas-en (Pontevedra) jokatuako igoera ligan lehen mailarako txartela lortzerik izan. Arrasatek ligako zazpi partidua galdu ditu aipatuako ligillan baina Angel Iñarraren (27 urte, 1,98 m.) eritziz esperientzia guztiz positiboa izan da: "personalki oso pozik nago egin dudako jokoarekin eta kontzentrazioan zegoen giroarekin. Pena bakarrik partidu bakar bat ere ez irabaztea izan da. Lurjota geratu gara baina kontutuan izan maila handiko taldeak eta ACBn ibilitako jokalariek egon direla. Sáez de Viteri gure basearen baja asko igarri dugu eta itxoin egin behar da lehen maila berregituratzen den kategoriaz igo dezakegu eta".

Angelek, txapelketa txukuna egin du egunkarietako kronikek diotenez: "gogorra izan da egunero partidu bat jokatzeko baina ondo ari naiz eta partidu ba-

koitzeko 30 minutu eta 10 puntuko media lortu dut". Angelek ez daki hurrengo urtean Arrasaten jokatuako duen: "ikusit egin behar, oso sakrifikatua baita. Gainera, lehen mailara igotzekotan, bidaia nabiko luzeak egiten dira".

Igor Urisabeli (21 urte, 1,98) Txus Brizuela entrenatzaileak ez dio ia jokatzeko aukerarik eman. "Primeran pasatu dugu baina baserre bueltatu naiz oso gutxi jokatu dudalako. Lehen partiduetan minutu batzuk jokatu nituen baina gero 7 jokalaririk bakarrik erabili ditut eta kontra 20 puntutako alde geneukanean beste jokalaririk batzuk ateratzen zituen. Denboraldian zehar sarri jokatu dut baina oraindik ez dakit zergatik ez duen oraingoan nerekin konstatu".

Mikel Garitanok (22 urte, 1,80) antzerako eritzia dauka. "ilusio handiarekin joan nintzen eta Viteri etorri ez den arren entrenatzaileak ez dit aukerarik eman".

Mikelek ez du uste Arrasaten jarraituko duenik: "bankiloan egoteko nabia dugu Bergaran



Igor Urisabel, zutik bigarrena ezkerretik hasita; Aniotz eta Angel Mari, eskumatik hasita seigarrena eta bosgarrena; Mikel Garitano, makurtuta eskumatik hasita hirugarrena.

jokatu eta datorren urtean 23 urtez azpiko taldea osatzen bada Bergarara itzuliko nabiz".

Azkenik, Aniotz Gabilondoren (23 urte, 1,92) ustetan, "maila handia egon da eta jokalaririk gazte eta beterano asko zegoen. Santfeliuenc katalenek adibidez ekipo gazte eta oso ona zeukaten. Nik ez dut gebiegi jokatu (partidu bukaeretan batez ere) baina mentalizatuta nengoen eta pixka bat jokatzearekin poztu egiten zara. Baina 7 partidu ja-

rraian jokatzeko oso gogorra egiten da. Bestela oso esperientzia ona izan da eta datorren urtean saskibaloian jarraitzea gustatuko litzaidake".



### Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

### Amets



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
 Berezano auzoa OÑATI

**PELOTA**

Larunbatean Eskoriatzan jokaturako Deba Arroko Pelota Txapelketako finaleran, gazteetan, Muruamendiaraz eta Gutiérrezen 22 eta 15 irabazi zioten Soralezeko bikoteari. Seniorretan, Oregi II.ak eta Oruesagastik 22 eta 1 irabazi zieten Arrasatekoiei.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

Nerea Mendizabal eta Lorea Askasibar Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeko gimnastek lehen eta laugarren postua eskuratu zituzten Euskadiko Eskolarteko Banakako Txapelketan.

**TXIRRINDULARITZA**

San Antonioko 2. urteko kadeteen txirrindulari proban Iberdrola taldeko Auzmendi nagusitu zen. Lehen bergararra Aitor Villamediana izan zen. Bestalde, Telleriarten, Lokatza Sumofic jubenil taldeko Aitor Larreak irabazi zuen, eta Ander Markiegi 3. sailkatu zen. Taldeka Lokatza Sumoficek irabazi zuen.

**ATLETISMOA**

Oscar Rueda Zaleak Atletiko taldeko kideak, kadete mailan, Euskadiko Txapelketako finalerako txartela lortu zuen 100 m.ko proban, Anoetan jokaturako sailkatze proban 12 segundu eta 4 ehuneneko eginaz.



Finlean Usoari 2 eta 0 irabazi ondoren, Errotagain Futbito Txapelketako garaile.

*Errotagain futbitoan garaile*

Errotagain taldeak 2 eta 0 irabazi zion Usoa taldeari larunbatean Labegarietan jokaturako futbito txapelketako finaleran. Partidu oso ikusgarria suertatu ez zen arren, zalegoa bere alde izan zuen Errotagain taldeak hobeto jokatu eta lehen aldiz txapelketa eskuratzea lortu zuen. Usoa, berriz, bigarren urtez jarraian 2. postuarekin konformatu beharko da. Partiduko golak Franciscok (argazkian, zutik, eskumako lehena) eta Antonek (makurtuta bigarrena ezkerretik) egin zituzten.

Bestalde, 3. eta 4. postuetarako partiduan Madurak 2 eta 0 irabazi zion Tokiederi. Fernando Salinerok (Ogizun) eta Miguel Angel Cenzualek (Madura) lehen mailako golegile eta atezainik onenak izan dira eta bigarren mailan, berriz, Igor Agirrezabal (Kalimotxo) eta Aitor Rementeria (Ufala) saritu zituzten. Madurak talderik erregularenaren trofeoa eraman zuen txapelketa osoan zehar partidu bakar bat galdu baitu. Futbito txapelketako hurrengo edizioa irail aldera jokatzeko hasiko da.



**Pizinak zabalik**

**Bihartik aurrera zabalik izango dira kanpoko igerilekuak. Goizeko 10etan zabaldu eta gaueko 9etan itxiko dira. Barrukoak, berriz, Uda Kanpainako ikastaroetan parte hartuko dutenentzat bakarrik izango dira zabalik eta beste guztiek ezin izango dituzte erabili. Azken egunotan eguzkia hartuz hurbildu dira hainbat herritar baina larunbatetik aurrera bainua hartzeko aukera ere izango da.**



## *Sor Eufemia bere ikasleekin*

**P**asa den ekainaren 6an, 91 urterekin hil zen Sor Eufemia Barriusoren oroimenezko argazkia duzue goiko hau. 1903an Ormillos-en (Burgos) jaio eta 20 urterekin Bergarara etorri zen Sor Eufemia. Orduetik eta 1978 urtera bitartean Haurreskolako klaseak eman zituen eta 1979an Bergaratik alde egin zuen. Goiko argazkia 1943 urte inguruan Ospitalean ateratakoa da eta orduko bere ikasleekin agertzen da gure herrian oso ezaguna izan zen Sor Eufemia. Argazkian, ezkerretik eskumara:

**Jarrita:** Maria Dolores Larrañaga, Manoli Uvierna, Pilar Ibarrola, Maria Pilar Galdos, Purita Bakaikua, Juanita izeneko bat, Nati Pujana, Mari Sol Agirrezabal, Maria Pilar Larrañaga, Bega Biziola eta Beatriz Biziola.

**Zutik:** ezezaguna, Sor Eufemia, Rosarito Gallastegi, Ana Mari Unamuno, ezezaguna, Felisa Etxeberria, Maria Pilar Iturbe, Esther Farrás (zutik atzean), Piedad Quintana, Itziar Ezpeleta, Itziar Gantxegi, ezezaguna, eta Isabel Gallastegi.

*Argazkia: Felisa Etxeberria*

**GURIDI** Altzariak

**Era guztietako  
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**LETE**

**TOLDOAK**

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24  
☎ 76 23 83 ARRASATE

**GALLASTEGI**

*Jostundegia*

mahoizko lanerako  
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

**ETXEBIZITZA**

**Estudio** bat alokatzen da **Benidormen**. Hondartzatik gertu. ☎ 76 23 43.

**Garajea** salgai Santa Marinaran. ☎ 76 34 31.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** salgai Bolu 18an. 120 m2. ☎ 76 19 17.

**Pisua** salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Garajea** hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua** alokatzen da. ☎ 76 13 85.

**Garajea** salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Oporrak** Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

**Pisua** alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

**Pisua** salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

**Pisua** salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauetz).

**Pisua** salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

**Pisua** alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

**Garajea** salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 11 89.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**DENETARIK**

**Sango remolke** bat salgai. Egoera onean. ☎ 76 61 74.

**Donostian** (Grosen) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 29 11 10 (Bego).

**Txakur Alsaciano** bat oparitzen da. ☎ 76 31 28.

**Edertze aretoa** traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

**Kanpin denda** (2 gela eta portxea) salgai. 2 urte. ☎ 76 58 12.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

**Onix** motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**Schnauzer** txakur-kumak salgai. Pedigreedunak. ☎ 76 48 52 (Xabier).

**Zuhaitz** bat desagertu zen asteartean Santamairia inguruan. ☎ 76 48 51 (Mendia Bizirik).

**Boxer** txakur-kumak prezio onean salgai. Pedigree benetan aipagarria. ☎ 945-284271 (Luis Mari).

**Vespa 200 TX** beltza salgai. 1.600 Km.. ☎ 76 53 12.

**Opel Kadett 1800** salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Alfa Romeo 33 SS-AB **kotxea** salgai. ☎ 76 02 01.

"**Cassio**" erloju beltz bat galdu dut Ipintza inguruan. ☎ 76 38 71.

**Sango** kanpin-erremolkea (2 logela) salgai. 150.000 pta.. ☎ 76 39 93.

**BMW** motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

**Bilbon** pisua konpartituko nuke. ☎ 76 61 68.

**LANA**

**OHO** eta **BBB**ko klaseak emango nituzke uztailen. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**OHO** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filologian** lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingeleseko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase partikularrak**. ☎ 76 50 67.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**Egunkariko** akzioak saltzeko pertsona bat behar da. Komisioa kobratuko luke. ☎ 76 08 19.

**Gutxituak**, haurrak edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 52 08.

Haurrak eta zaharrak zaindu eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 40 94.

**Hildakoak**

**Ramon Maiza Lakunza**  
ekainak 9, 74 urte

**Vicente Mujika Jauregi**  
ekainak 10, 78 urte

**Ignacio Aranguren Arrazola**  
ekainak 12, 77 urte

**Jaiotakoak**

**Lorea Franco Vizarro**, ekainak 7  
**Jon Ander Larrañaga Roca**, ekainak 11  
**Andoni Lasa Lizarralde**, ekainak 11

**OHARRA:** Akats batengatik gaizki argitaratu genuen maiatzaren 31n jaio zen **Jone Agirrezabal Zubizarretaren** izena.

Atseden zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**

**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**



Sukalderako altzariak

**Sukalde zoragarriak!**